

PRESIDENTEA
Gentza Alamillo

AIARAKO UDALAK 2017ko MAIATZAREN 4an
EGINIKO EZOHIKO ETA PREMIAZKO OSOKO
BILKURAREN AKTA

ZINEGOTZIAK

Iñigo Pinedo
José Antonio Bartolomé
Montse Angulo
Susana Martín
Lauren Uria
Esteban Hernando
Nerea Goti
Iraida Saenz de Lafuente
Iratxe Parro

Arespalditzan, udaletxeko bilkura-aretoan, bi mila eta hamazazpiko maiatzaren lauan, zortziak eta hogeita hamar minutu direnean, Udalbatza Osoa bildu da ohiko bilkura egiteko. Alkatea, Gentza Alamillo Udaeta jauna, da mahaiburua eta albo batean aipatutako zinegotziak bertaratu dira, behar bezala deituta, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedaturikoaren arabera. Neuk, Naiara Lazpita Marcos idazkari andreak, lagundu ditut eta ekitaldiaren fede eman dut.

BERTARATU EZ
DIRENAK

Josu Artetxe

IDAZKARIA

Naiara Lazpita

Alkate jaunak ongietorria egin die eta, besterik gabe, ohiko bilkurako gai-zerrendan dauden puntuak eztabaidatu eta bozkatzeari ekin diote:

Bilkura ez denez deitu Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak (apirilaren 2ko 7/85) ezarritako gutxieneko aurrerapenarekin, hau da aztergaien zerrendako lehenengo puntua:

1.- Onestea, bidezkoa bada, ezohiko eta premiazko osoko bilkura honen deialdia egiteko beharra.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bilkura hau egiteko beharrari buruzko bozketa egin da. Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute.

2.- Onestea, bidezkoa bada, 2017 ekitaldiko udal aurrekontua.

Gentza jaunak (EAJ-PNV), labur-labur azaldu du 2017rako aurrekontuen proiektua. Adierazi du zenbait partida berri sartu direla; adibidez, energia elektrikoko zerbitzuen lizitazioarako aholkularitza edo igerilekuaren hondartza-gunerako lanak. Handitu egin da zenbait sailtako zenbatekoa, esaterako, foro soziosanitarioarena, berdintasuneko partida, eta gazteriarena. Azken horri, zenbatekoa gehitu, eta izena aldatu zaio gazteleku baten kudeaketari dagokion gastua egozteko.

Gaineratu du, halaber, Administrazio Batzordeei ematen zitzaizkien diru-laguntza korrante guztiak metatu eta partida bat sortu dela. Horren zenbatekoa nabarmen handitu da. Esandakoaz gain, handitu egin da ikastaroen eta lantegien partida ere, iraupen laburreko zenbait ikastaro kontratatzeke: esaterako, janari osasungarria, sukaldaritza...

Etxaurren Ikastolako berokuntzako sistemaren gain jarduteko partida bat txertatu da; izan

ere, aribidean den auditoretza energetikoak hobetzeko puntu gisa hauteman du jadanik, eta biomasako galdara batekin ordezkatzeko aukera aztertuko da.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) labur-labur berrikusi ditu 2017ko aurrekontuetan, iazkoen aldean, jaso diren beste aldaketa batzuk.

Iraida andreak (AB) adierazi duenez, Administrazio Batzordea finantzatzeko partida handitzeko proposamena egin zen, batzordean aurkeztutako lehen aurrekontu-zirriborroaren zuzenketa bidez, eta zertxobait handitu dela ikusi da, baina ez eskatu bezainbeste, nahiz eta ikusi, diruzaintzako soberakinen parte bat partida hori zabaltzeko erabiltzeko proposamen bat dagoela. Aurreikusitakoaz gain, Iraida andreak adierazi du beste proposamen batzuk ere egin zirela: adibidez, 2017an Aholkularitza Juridikoko Zerbitzua kontratatzea, edo lanaldi erdiko administrari laguntzaile bat kontratatzea Luiaondoko bulegoan zerbitzu iraunkorra emateko eta Udaleko langileei administrazio zereginetan laguntza emateko. Ildo horretan, Iraida andreak gaineratu du gauza jakina dela zer asmo duen gobernu taldeak. Horregatik guztiagatik, gaineratu du bere taldeak aldeko botoa emango diola gobernu taldeak bidalitako aurrekontu-proiektuari.

Lauren jaunak (BILDU) esan du bere taldeak kontra bozkatuko duela, bere taldeak kontsiderazio oso posibilstak egin zituelako, baina gobernu taldearen aldetik ez dela izan jarrera positiborik EH BILDU taldearen aldeko botoa bilatzen saiatzeko.

Lauren jaunak gaineratu du euskalduntzearen % 100 diruz laguntzeko proposamena egin zuela bere taldeak. Batzordean, udaleko ez gain euskara ikasteko beste laguntza batzuk ere bazeudela esanez erantzun zitzaion proposamenari.

Lauren jaunak azaldu duenez, ikusi du HABEren laguntzez gain Aldundiak 70 euroko laguntza ematen duela, guztientzat berdina, baina mailaz gainditzearen baitan dagoela; bere asmoa, gaineratu du, euskalduntze-prozesuak kosturik ez izatea da, eta horregatik, partida % 20 edo % 25 handitzeko proposamena egin du.

Lauren jaunak jarraitu du esanez bide-sareari buruz ere egin zela proposamen bat. Haren ustez, zenbateko urria behar da horretarako, eta gaineratu du aurreko legegintzaldian jadanik egin zela aurrerapena Luiaondotik Bengoan barrena Arespalditzara doan bidean, eta mendibide gisa egokitu dadila eta seinaleak jar daitezela eskatzen dute, baina, jarraitu du Lauren jaunak, aurrekontuan ez da ildo horretan ezer aurreikusi ezta ere.

Administrazio Batzordeei dagokienez, Lauren jaunak gaineratu du eurek ekarpen bat egin zutela obretarako diru-laguntzaren zenbatekoa emendatzeko. Oraindik egin gabe dago diru-laguntza horiek arautzen dituen ordenantza, baina, haren taldearen ustez, Batzordeei dagokienez udalak ezin du diru-igorlea besterik ez izan; inbertsioak zuzendu behar ditu halaber, oinarrizko azpiegituretako obrak ezartzen joan daitezela.

Lauren jaunak jarraitu du esanez Luiaondoko geltokiaren arazoa ere plazaratu zela. Dagoeneko adierazi da ez dagokiola udalari, baina ez zaio jaramon handirik egin gaiari, eta horregatik ekiten diote berriz. Egindako ekarpenetatik bakarra jaso da: hain zuzen, gazteriaren partidaren izena aldatzea, “gazteleku” zerbitzua gehitzeko. Ildo horretan, gaineratu du, ez zaio asmo den proiektua jakinarazi, ez zinegotziei, ez gurasoei, ez dakite zer eduki eman nahi zaion proiektuari eta, betiere, oposizioarekin eta gurasoekin adostu beharrekoa da.

Gehitu du, halaber, proposatutako beste ekimen bat udalerriko bi monumentu adierazgarrietan –hau da, Malato Zuhaitzean eta Zeraobeko Zelaian– taula didaktiko batzuk jartzea zela, baita balioa emateko gutxieneko azpiegituren bat; adibidez, Malato Zuhaitzaren kasuan, autobus-geltoki gisa balia daitezkeen gutxieneko azpiegituren bat izan liteke.

Lauren jaunak (BILDU) amaitu du esanez proposamenak nahiko apalak zirela, eragin ekonomiko eskasekoak, baina gobernu taldeak ez duela horietatik bakar bat ere hartu kontuan.

Gentza jaunak (EAJ-PNV), euskara ikasteko diru-laguntzei dagokienez, erantzun dio partida hori ez zela handitu iragan legegintzaldiko lau urteetan eta, hain justu, oraintxe eskatzen dela handitu dadila. Gentza jaunak, gainera, berriz adierazi du badaudela euskararen ikaskuntza diruz laguntzen duten beste administrazio batzuk, eta garrantzitsua dela hori egiten jarraitzea.

Gentza jaunak gaineratu du, gobernu taldeak BILDU taldearen proposamenekiko jarrera oso aktiboa ez dela eta, proposamen horiek berandu iritsi zirela. Administrazio Batzordeei ematen zaien diru-laguntzari buruz, Gentza jaunak erantzun du euren ustez Administrazio Batzordeek kanpotik finantzaketa jaso behar dutela azpiegitura-lan handiak egiteko, Aldunditik eta Eusko Jaurlaritzatik; beraz, ez du zentzurik gastu arruntetik dirua kentzea lanetarako diru-laguntza handiagoak ezartzeko, udalak egin dezakeen ekarpena oso txikia izango baita beti. Gainera, ez dator bat Administrazio Batzordeen aukerak lan jakin batzuetara bideratzeko asmoarekin: Batzordeek berek erabakitzen dute non inbertitu. Batzordeak dagoeneko ahaleginetan ari dira saneamenduko eta ur-hornidurako obrei ekiteko.

Gaztelekuari buruz esandakoaren inguruan, Gentza jaunak erantzun du xehetasunez aztertu dituztela beste esperientzia batzuk, porrot zeintzuk egin duten begiratzen aritu direla, eta, ondoren, oposizioarekin eta gurasoekin batera, hobe egokitzen den eredia bilatzen saiatuko direla, beharrei erantzungo dien zerbitzua garatzeko. Eremuari balioa ekarri nahi zaio, egoteko leku bat baino zerbait gehiago izan dadin.

Susana andreak (EAJ-PNV), ildo horretan, gaineratu du foro soziosanitarioa ere engaiatuko dela gaiarekin, biztanle-segmentu hori kezkabide delako, eta gazteleku osasungarria izatearen alde egin behar dugulako.

Nerea andreak (BILDU) esan du gaia azalduta dagoela, azken berrien arabera gazteentzako aisialdi-zerbitzu baten inguruan ari zirela. Orain arte, ez dute jakin zertan oinarrituko zen proiektua.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun du inoiz ere ez dela horrela planteatu; gai horren inguruko planteamendu bat egiteko informazioa biltzen ari dira oraindik.

Lauren jaunak (BILDU) gehitu du 2017rako aurrekontua egiten ari direla, eta gaur egun gaia kudeatzen arituko balira ekarpen berberak proposatuko lituzketela. Eta Administrazio Batzordeen finantzaketari buruz, Aldundiak egiten duen gauza berbera egitea proposatzen dute; haiek diru-laguntzak bideratzen dituzte, eta oinarrizko azpiegiturak lehenesten.

Nerea andreak (BILDU) esan du ez zaiola egokia iruditzen BILDUK aurreko legegintzaldiaren lau urteetan partida hori aldatu ez zuela esanez kitatzea euskararen diru-laguntzei buruzko gaia.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) adierazi du arrazoi nagusia dela, aurretik azaldu duten moduan, beste administrazio publikoen diru-laguntzak jasotzen direla.

Nerea andreak erantzun du urteek aurrera egin ahala egoerak hobera egin dezakeela. Euskalduntzea % 100ean bermatzea Korrika eta Eusko Jaurlaritzaren erronketako bat da; BILDUK eskatzen duen bakarra da gai horretan gehiago inplikatzeko. Gaineratu du, halaber, zuzenketak hogeita lau ordu berandu aurkeztu zirela, akats bat zela eta.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) euren ekarpenak eskertu dizkie taldeei; izan ere, aurrekontuaren eta Aiarako herritarren bizitzak hobetzea ekarriko du horrek guztiak. Eta adierazi du gobernu taldea, ahal den neurrian, ekarpen guztiak jasotzen saiatuko dela.

Inork ez du beste ezer esan; beraz, 2017ko aurrekontuen proiektuari buruzko bozketa egin da, eta hau izan da bozketaren emaitza:

Aldeko botoak: 7 (5 EAJ/PNV eta 2 AB)

Aurkako botoak: 3 (EH BILDU)

Eta hori dela bide,

IKUSI DA.- 2017 ekitaldirako aurrekontuaren espedientea.

AINTZAT HARTU DA.- Ogasuna, Sustapen Ekonomikoa, Enplegua eta Kontu Bereziak Batzordearen bileraren (bi mila eta hamazazpiko maiatzaren bian egin zen) ondoren emandako aldeko irizpena.

Udalbatza Osoak, aldeko 7 botorekin (5 EAJ-PNVk eta 2 AIARA BATUZek) eta aurkako 3 botorekin (EH BILDUK), honako hau **ERABAKI DU**:

Lehenengoa.- Hasiara batean onestea korporazio honen 2017 ekitaldirako aurrekontu orokorra, 2.118.742,93 eurokoa, diru-sarreraren zein gastuen egoerari dagokiona. Hona hemen kapituluaren laburpena:

DIRU-SARREREN HASIERAKO AURREIKUSPENAK KAPITULUKA	ZENBATEKOA
1.- ZUZENEKO ZERGA	667.700,00
2.- ZEHARKAKO ZERGAK.....	52.000,00
3.- TASAK ETA BESTE DIRU-SARRERA BATZUK.....	180.214,48
4.- TRANSFERENTZIA ARRUNTAK.....	1.202.102,11
5.- ONDAREKO DIRU-SARRERAK.....	16.726,34
DIRU-SARRERA ARRUNTAK (1ETIK 5ERA).....	2.118.742,93
6.- INBERTSIO ERREALAK ETA HIRIGINTZA-JARDUEREN ONDORIOZKO BESTE DIRU-SARRERAK BATZUK BESTERENTZEA.....	0,00
7.- KAPITAL-TRANSFERENTZIAK.....	0,00
8.- FINANTZA-AKTIBOAK.....	0,00
9.- FINANTZA-PASIBOAK.....	0,00
DIRU-SARREREN AURREKONTUA GUZTIRA.....	2.118.742,93

GASTUEN HASIERAKO KREDITUAK KAPITULUKA	ZENBATEKOA
1.- LANGILERIA-GASTUAK.....	547.116,27
2.- ONDASUN ARRUNTEN ETA ZERBITZUEN EROSKETA	720.447,28
3.- FINANTZA-GASTUAK.....	2.000,00
4.- TRANSFERENTZIA ARRUNTAK.....	602.665,53
5.- KREDITU GLOBALA ETA USTEKABEKO BESTE GASTU BATZUK.....	5.500,00
GASTU ARRUNTAK (1ETIK 5ERA).....	1.877.729,08
6.- INBERTSIO ERREALAK.....	171.013,85

7.- KAPITAL-TRANSFERENTZIAK.....	70.000,00
8- FINANTZA-AKTIBOAK.....	0,00
9.- FINANTZA-PASIBOAK.....	0,00
GASTUEN AURREKONTUA GUZTIRA.....	2.118.742,93

Bigarrena.- Onestea aurrekontuaren espedientean dagoen Aurrekontua Gauzatzeko Udal Araua.

Hirugarrena.- Onestea espediente horretan jasota dagoen aurrekontuaren lanpostuen zerrenda eta 1., 2., 3. eta 4. eranskinak.

Laugarrena.- Onestea 2017-2018 ekitaldirako diru-laguntzen plan estrategikoa.

Bosgarrena.- Espediente hori jendaurrean ikusgai jartzea, 3/2004 Foru Arauaren 15. artikuluan ezarritako moduan eta epeetan, erreklamazioak aurkez daitezzen.

Seigarrena.- Erabaki hau behin betikotzat hartzea, erreklamaziorik ezean.

Zazpigarrena.- Erreklamaziorik balitz, hilabeteko epean beste erabaki bat hartzea.

Zortzigarrena.- Erabakia argitaratzea, arauzko moduan eta epean.

Bederatzigarrena.- Behin betiko erabakiarekin batera, erakunde honen lanpostuen zerrenda argitaratzea, Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legeak 16. artikuluan xedatutakoarekin bat.

Hamargarrena.- Aldi berean, espedientearen kopia bana igortzea Arabako Foru Aldundiari eta Arabako Ekonomia eta Ogasun Ordezkaritzari.

3.- Onestea, bidezkoa bada, Gastu Orokorretarako Diruzaintzako Soberakina erabiltzea 943.434.000 “Udalerriko Administrazio Batzordeetako finantzaketaren transferentzia” aurrekontu-aplikazioa handitzeko.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) adierazi du Diruzaintzako Soberakinaren % 4 bideratzeko proposamena ekarri dela, Ogasun Batzordean hitz egin zen bezala, “Administrazio Batzordeetako finantzaketaren transferentzia” partida handitzeko.

Iraida andreak (AB) esan du bere taldeak aurkeztutako proposamenetako bat dela, eta hortaz, ados daudela. Gehitu du faltan dutela idatzizko ebazpen-proposamena, eta idatzita dagoenean haiei bidaltzeko eskatu du.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatza osoko kideek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide,

IKUSI DA.- Udal honek hasiera batean onetsi duela 2017 ekitaldirako aurrekontua; bertan aurreikusten da 943.434.000 “Udaleko Administrazio Batzordeetako finantzaketa transferentzia” aurrekontu-aplikazioa handitzea, udalerriko tokiko erakunde txikien artean banatzeko; banaketarako irizpideak ezartzen dituen ordenantza onetsi ondoren.

AINZAT HARTU DA.- Gastu Orokorretarako Diruzaintzako Soberakina, 2016 ekitaldiko likidazioaren ondoriozkoa, 591.367,50 eurokoa dela, eta Udalbatzarako aske erabil

dezakeela zenbateko hori 2017 ekitaldi honetan zehar, Udal honek ez baitu zor publikorik.

Udalbatza Osoak, aho batez, **ERABAKI DU**:

Lehenengoa.- 2016ko Gastu Orokorretarako Diruzaintzako Soberakinaren % 4 bideratzea (2017 ekitaldian zehar erabiltzeko da) 943.434.000 "Udaleko Administrazio Batzordeetako finantzaketa transferentzia" aurrekontu-aplikazioa handitzeko; zehazki, 23.654,70 euroko zenbatekoa.

Era berean, 2017 ekitaldiko likidazioaren ondoriozko Gastu Orokorretarako Diruzaintzako Soberakinaren ehuneko bera bideratuko da (2018 ekitaldian zehar erabiltzeko) 2018ko aurrekontuen "Udaleko Administrazio Batzordeetako finantzaketa transferentzia" aurrekontu-aplikazioa handitzeko; salbu eta 2018 ekitaldian aurrekontua onesten ez bada eta 2017ko aurrekontua luzatu eta horrekin jarraitu behar ez bada.

Bigarrena.- Gastu Orokorretarako Diruzaintzako Soberakinaren ehuneko hori bideratu ahal izateko, 943.434.000 aurrekontu-aplikazioa handitzeko, aurreko puntuan adostutakoaren arabera, baldintza hauek bete beharko dira:

a) Gastu Orokorretarako Diruzaintzako Soberakinak 200.000 eurotik gorakoa izan behar du.

b) Ez du egon behar aurreikusi gabeko eta atzeratu ezineko beste larrialdi-egoerarik, Udalari Soberakin hori beste xedeetarako erabiltzea eskatzen dionik.

Hirugarrena.- 2017 ekitaldirako Udal Aurrekontua behin betiko onetsitakoan, beharrezkoa den aurrekontu-aldaketa egingo da 943.434.000 aurrekontu-aplikazioa handitzeko, ebazpen honen lehenengo puntuan adierazitako baldintzetan. Hori guztia, arau hauekin bat etorritz eta horietan ezarritako prozedurari jarraikiz: 3/2004 Foru Araua, otsailaren 9koa, Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoa, eta 38/2013 Foru Araua, abenduaren 13koa, Arabako Toki Erakundeen Aurrekontu Egonkortasuna eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa (17/2014 Foru Arauaren erredakzioa).

Laugarrena.- 2018rako Udal Aurrekontuan "Udaleko Administrazio Batzordetako finantzaketa transferentzia" izeneko aurrekontu-aplikazioa esleitzen ez bada, Administrazio Batzordeei euren gastu arruntak transferitu edo diru-laguntzarako esleituta dagoen aurrekontu-aplikazioa betearazteko erabiliko da 2017ko Gastu Orokorretarako Diruzaintzako Soberakinaren % 4ri dagokion zenbatekoa.

4.- Onestea, bidezkoa bada, Arabako Foru Aldundiaren eta Aiarako Udalaren arteko lankidetzaz hitzarmena aldatzea eta luzatzea, mugikortasun-urritasun larriak dituztenei, bono-taxiaren erabileraren bitartez, ordezkoko garraiobidea eskaintzeko laguntza-programa garatze aldera.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) adierazi du aldaketa txiki bat dagoela zerbitzuaren kudeaketan. Hemendik aurrera ez da taloitegien bidez kudeatuko; Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak hautatu duen finantza-erakunde bati lotutako aurreordainketa-txartel bat emango da, erabiltzailearentzako banku-loturarik ez duena. Tokiko taxi-gidariak datafono bat instalatu du, eta horren bidez, bidaiak egin ahala, erabiltzaileek kontsumitzen duten zenbatekoa kentzen joango da. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak kudeatuko du txartelen igorpen- eta kargatze-prozesu

osoa; ondoren, Udalari kitatuko dio ordaintzea dagokion zatia (1/3).

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatza osoko kideek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide,

IKUSI DA.- Arabako Foru Aldundia eta Aiarako Udala 2007. urtetik elkarlanean ari direla, laguntza-programa baten kudeaketan, mugikortasun-urritasun larriak dituzten pertsonen ordezkoko garraio bideak eskaintzeko, bono-taxiaren erabileraren bitartez.

IKUSI DA.- Arabako Foru Aldundiak eta Aiarako Udalak 2015eko abuztuaren 4an programa hori garatzeko sinatu zuten lankidetzaren hitzarmena.

IKUSI DA.- Hitzarmenaren aldaketaren eta luzapenaren zirriborroa, Arabako Foru Aldundiak igorritakoa.

Udalbatzak, gehiengo osoz, honako hau **ERABAKI DU**:

Lehenengoa.- Onestea, Arabako Foru Aldundiaren eta Aiarako Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmenaren aldaketa eta luzapena, mugikortasun-urritasun larriak dituzten pertsonen ordezkoko garraio bideak eskaintzeko programa garatzeko. Hitzarmena, bono-taxiaren programako oinarri arautzaileetan aurreikusitakoarekin bat etorritik egingo da (hitzarmenera gehitu da eranskin gisa).

Bigarrena.- Alkate-udalburuari dokumentu hori sinatzeko ahalmena ematea.

Hirugarrena.- Erabaki hau Arabako Foru Aldundi txit gorenari jakinaraztea, jakinaren gainean egon dadin eta dagozkion ondoreak izan ditzen.

Jorrazteko beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bukatutzat eman du bilera, bederatziak eta hogeita minutu direnean, eta aztertutako guztia eta hartutako erabakiak jasota gera daitezkeen, akta hau egin da, eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Arespalditzan, bi mila eta hamazazpiko maiatzaren lauan.

O.E.

ALKATE-UDALBURUA,

IDAZKARIA,

Izpta.: Gentza Alamillo Udaeta

Izpta.: Naiara Lazpita Marcos